## ZARAUZKO UDALA

*10-2 Area –Salberdin- Urbanizatzeko Jarduketa Programa (UJP). Behin Betiko Onespena.*

2011ko maiatzaren 26an egindako bilkuran, Zarauzko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak zera erabaki zuen.

1. Aurkeztutako alegazioei erantzuna ematea, Hirigintza, Plangintza eta Ingurumeneko Zerbitzuak egindako txostenean adierazitako arrazoien arabera. Horren ondorioz,

* Ion de la Maza.

— Alegazioa ezestea eta, horren ondorioz, beste bizileku bat emateko eskubide indibidualizatua ukatzea.

* Iñaki Soraluce, Muno SA-ren izenean.

— Alegazioa onartzea eta, horren ondorioz, partzela-planoa zuzendu eta 2. partzelaren titulartasuna aldatzea.

2. Zarauzko hiri antolamenduaren plan orokorreko 10-2 area –OR Salberdin– urbanizatzeko Zarauzko Udalak sustatu duen jarduketa-programari behin betiko onespena ematea.

Urbanizatzeko jarduketa-programa garatzeko idatzi beharko den urbanizazio proiektuak kontuan izan beharko ditu Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzuetako udal departamentuak egindako oharrak (0646/2011 txostena, maiatzaren 17koa).

Hirigintzako exekuzioari buruzko datuak:

— Sailkapena: Hiri lurzoru finkatu gabea.

— Hirigintza-eraikigarritasuna (eraikitako m$^2$ sestra gainetik): 102.000 m$^2$.

— Etxebizitza erabilera: 90.500 m$^2$ (goi solairuetan).

— Etxebizitza librea: 47.500 m$^2$.

— Babes publikoko etxebizitza: 43.000 m$^2$.

— Hirugarren sektoreko erabilera: 12.000 m$^2$ (behe solairua).

— Jarduketa Sistema: Lankidetza.

— Urbanizazio kargen aurrekontua: 29.169.115,09 €. Urbanizazio obren exekuzio aurrekotua kontrataren bidez, 19.547.312,99 €.

— Urbanizatze eta eraikuntza lanen egikaritza-programa: Hiru fasetan exekutatzeko; guztira, 7 urte urbanizatzeko eta eraikitzeko.

Jendeak oro har jakin dezan argitara ematen dena ondoko argibidearekin: Administrazio-bideari amaiera ematen dion eta behin betikoa den erabaki honen aurka jarraian agertzen diren errekurtsoak aurkeztu ahal izango dira:

*Berraztertzeko errekurtsoa:* Aukerazkoa: Erabakia hartu duen organoari, hilabeteko epean, akordioa argitaratzen denetik kontatzen hasita. Errekurtsoa aurkeztu eta hilabete igarota ebazpena jakinarazi ez bada, orduan errekurtsoa onartu ez dela ulertuko da. Edota, zuzenean,

*Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa:* Donostiako Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, akordioa argitaratzen denetik kontatzen hasita; edota, administrazioaren isilunearen ondorioz ezetsi bada, sei hilabeteko epean. Hori guztia, egoki deritzozun beste edozein errekurtso jartzeari utzi gabe.

Zarautz, 2011ko ekainaren 6a.—Jon Urien Crespo, Alkatea.

(3628) (6779)

## AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ

*Programa de Actuación Urbanizadora (PAU) del área 10-2 Salberdin. Aprobación Definitiva.*

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Zarautz, en sesión celebrada el día 26 de mayo de 2011 adoptó el siguiente acuerdo:

1. Dar contestación a las alegaciones formuladas, en base a los razonamientos del informe del servicio de Urbanismo, Planificación y Medio Ambiente: En consecuencia,

* Ion de la Maza.

— Desestimar la alegación y, en consecuencia, no reconocerles el derecho de realojo individualizado.

* Iñaki Soraluce, en nombre de Muno SA.

— Estimar la alegación y, en consecuencia, corregir el plano parcelario rectificando la titularidad de la parcela n.º 2.

2. Aprobar definitivamente el programa de actuación urbanizadora del área 10-2 –OR Salberdin– del plan general de ordenación urbana de Zarautz promovido por el Ayuntamiento de Zarautz.

El futuro proyecto de urbanización a redactar en desarrollo del programa de actuación urbanizadora deberá tener en cuenta las observaciones del departamento municipal de Obras Públicas, Infraestructuras y Servicios (informe 0646/2011, de 17 de mayo).

Datos relativos a la ejecución urbanística:

— Clasificación: Suelo urbano no consolidado.

— Edificabilidad urbanística (m$^2$ construidos sobre rasante): 102.000 m$^2$.

— Uso de vivienda: 90.500 m$^2$ (plantas altas).

— Vivienda libre: 47.500 m$^2$.

— Vivienda protección pública: 43.000 m$^2$.

— Uso Terciario: 12.000 m$^2$ (planta baja).

— Sistema de actuación: Cooperación.

— Presupuesto cargas de urbanización: 29.169.115,09 €. Presupuesto ejecución por contrata obras de urbanización: 19.547.312,99 €.

— Programa de ejecución de las obras de urbanización y edificación: A ejecutar en tres fases; 7 años en total, para urbanizar y edificar.

Lo que se publica para general conocimiento y efectos, con indicación de que contra la presente resolución, que pone fin a la vía administrativa, se podrán interponer los siguientes recursos:

*Recurso de reposición:* Con carácter potestativo, ante el mismo órgano que ha dictado el acto, en el plazo de un mes, a contar desde la publicación del acuerdo. El recurso se entenderá desestimado si transcurre un mes desde su interposición, sin que se notificara la resolución. O bien directamente,

*Recurso contencioso-administrativo:* Ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a contar del día de su publicación, o seis meses en el caso de desestimación por silencio administrativo; todo ello sin perjuicio de que pueda ejercitar cualquier otro recurso que estime procedente.

Zarautz, a 6 de junio de 2011.—El Alcalde, Jon Urien Crespo.

(3628) (6779)